

Bilboko Berregokipenerako Hirigintza Elkarte S.A. SURBISAko presidentearen 2023.02.21eko erabakiaren laburpena, zeinen bitartez 2023an Bilboko egoitza eraikinak birgaitu eta hobekuntzak egiteko diru-laguntzetarako deialdia egiten baita.

Diru-laguntzei buruzko 38/2006 Lege Orokorrak, azaroaren 17koak, 17.3 b eta 20.8 a artikuluetan aurreikusten duenarekin bat eginez, deialdiaren laburpena argitaratu da, eta horren testu osoa Diru Laguntzen Estatuko Datu Basean kontsulta daiteke: (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>). Hona hemen laburpena:

1.- Xedea.-

Deialdi honen xedea da Surbisaren jarduketa eremuetan, hots, Gurutze auzoko Area Degradatuan, Zazpilanda Etxaldean, Trenbideko Langileen auzoan, Olabeagan, Iralan eta Iralako Hirigune Historikoan, nahiz Zazpikaleetako Berregokipenerako Egitamu Berezia eta Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabalaen Birgaitze eta Barne Eraldaketarako Egitamu Berezia aplikatzekoak diren eremuetan kokatutako etxebizitza, lokal eta egoitza eraikinak birgaitu eta hobekuntza lanei ekiteko diru-laguntzak ematea. Horiek guztiak eta, Oinarri hauen indarraldian Udal Osoko Bilkurak Surbisari udalerrriaren beste eremu batzuen kudeaketa lana emango balio, eremu horiek ere Oinarri hauen babesean geratuko lirateke, Oinarrien Zazpigarren Xedapen Gehigarrian jasotzen diren mugen kaltetan izan gabe.

Zehazki esanda, Bigarren Oinarrian (1. lerrotik 6.era, biak barnean hartuta) eta lehenengo xedapen gehigarritik seigarrenera, biak barnean hartuta, jasotako laguntzen deialdia egiten da.

2.- Onuradunak.

Egoitza eraikinen Jabekideen Elkarteak edo pertsona fisikoak; birgaitzekoa den eraikin edo etxebizitzetan ohiko etxebizitza duten pertsona fisikoak; birgaitzeko eraikin edota etxebizitzan ohiko bizilekua izan ez baina birgaitze gaietan araudi autonomikoaren betekizunak betetzen dituztenak; birgaitzekoa den egoitza eraikineko lokal baten jabe diren pertsona fisikoak; lokal baten jabe diren pertsona fisiko edo juridikoak edo egoitza eraikin baten beheko solairuan jarduera baten titularrak direnak. Hori guztia Hirugarren Oinarriarekin bat eginez.

3.- Oinarri Arautzaileak.

Surbisako Administrazio Kontseiluak 2023ko otsailaren 6an eginiko saioan onetsitakoak dira eta 2023ko otsailaren 21eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, nahiz Surbisaren web-ean, argitaratuta daude.

4.- Aurrekontu kreditua.

Deialdi honen guztizko zenbatekoa 1.520.000,00€-koa da, eta 2023 aurrekontuaren kargurakoa da.

5. Zenbatekoak.

Jasoko den zenbatekoa Zazpigarren Oinarrian, nahiz lehenengo Xedapen Gehigarritik seigarrenera bakoitzean, biak barnean hartuta, zehaztutako portzentaje eta gehienezko zenbatekoen baliokide izango da.

6.- Aurkezteko lekua.

Eskariak, beharrezkoa den dokumentazioarekin batera, Surbisak Erronda kaleko 6.ean dituen bulegoetan bertaratuta aurkeztuko dira; horretarako, aurretiazko hitzordua eskatu ahalko da 94-415.99.55 telefono zenbakira deituta, edo Eusko Jaurlaritzak gaitutako plataformaren bitartez, zeinetan Surbisa espedientean ordezkari gisa aritzeko baimena txertatuko baita.

7.- Eskariak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa aurkezteko epea.

Laguntzen eskariak aurkezteko epea zabalik egongo da Oinarrien indarraldian eta harik-eta urtero argitaratzen den aurrekontu hornidura agortzen den arte edo, kasua bada, zabaltzeak irauten duen arte.

Urteko hornidura agortutakoan, eskari berriak aurkeztu ahalko dira, baina horiek aurrekontu-hornidura dagoeneko hurrengo ekitaldian ebatziko dira.

Nolanahi ere, diru-laguntzen eskaria obrak hasi aurretik aurkeztu beharko da eta ezingo zaie diru-laguntzen xede diren lanei ekin harik-eta aurkeztutako eskaria osatu eta ebazten den arte, aurretiaz hasteko berariazko baimenik ez bada bederen.

“Erantzukizunpeko aitortpena” ere jasotzen duen eta behar bezala sinatuta dagoen eskari-orriarekin batera, 8.3 Oinarri arautzailean adierazitako dokumentazioa ere aurkeztu beharko da.

8.- Emate-prozedura, honen epeak, esku-hartzen duten organoak, baliabideak eta kontuan hartu beharreko gainerako betekizunak Oinarri Arautzaileetan jasotakoak dira.

9.- Beste datu batzuk.

Diru-laguntza horiek osagarriak dira Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko uztailaren 21eko Aginduan, etxebizitza era eraikinetan birgaitzea, iriste erraztasuna eta energi efizientzia gaietan babesgarriak diren jarduketetarako finantza neurriei buruzkoan (2021eko irailaren 9ko EHAA), aurreikusitakoekiko, beraz, bertan agindutakoa ere bete egin behar da.

Bilbon, 2023ko otsailaren 21ean.

SURBISako presidente Iván Calderón Fuente